

PROIEKTUA EGITEKO ESKAKIZUNAK

(II. eranskineko 1. puntuaren arabera: "Instalazio-proiektua")

Oro har, instalazio-proiektua beharko dute instalazio hauek:

- a) Instalazioa osatzen duen ekipo bakoitzaren **gehieneko zerbitzu-presioa** (bar-etan), bider instalazio horretan modu iraunkorrean konektatua dagoen presio-ekipo bakoitzaren **bolumena** (litrotan) egin, eta **biderkadura horien batura 25.000 baino handiagoa denean**, kanpo utzita uztaillaren 24ko 709/2015 Errege Dekretuaren 4.3 artikuluan aipatzen diren hodiak (ontziak eta ekipoak konektatzekoak).
- b) Presioaren handitze bat sor dezaketen instalazioak, dela sugar baten eraginpean daudelako, dela zerbaitek beroa ematen duelako gainberotzeko arriskua eraginez, dela erreazio kimikoengatik (autoklabeak edo erreaktoreak, besteak beste); betiere, instalazio horretan konektatua dagoen presio-ekipo bakoitzaren **gehieneko zerbitzu-presioa** (bar-etan) bider **bolumena** (litrotan) egin, eta **biderkadura horien batura 10.000 baino handiagoa denean**, kanpo utzita uztaillaren 24ko 709/2015 Errege Dekretuaren 4.3 artikuluan aipatzen diren hodiak (ontziak eta ekipoak konektatzekoak).
- c) **Fluido** arriskutsuak dituztenak, ondoren adierazten direnak baino kantitate handiagoan. Kontuan hartu beharko da instalaziora konektatutako presio-ekipo guztien kopuruen batura (presio-ekipo garraiaerriak barne), baldin eta fluido arriskutsuak badauzkate, uztaillaren 24ko 709/2015 Errege Dekretuaren 4.3 artikuluan sailkatutakoak barne, eta kanpo utzita ontziak konektatzeko hodiak eta konektatuak egon arren erreserban utziak dauden presio-ekipo garraiaerriak, betiere martxan dauden presio-ekipo garraiaerriak adina edo gutxiago badira.

Substantziak eta nahasteak	Arrisku ohartarazpenak	Kopurua (kg)
Lehergai ezegonkorak.	H200	1
1.1 dibisioko lehergaiak.	H201	
1.2 dibisioko lehergaiak.	H202	
1.3 dibisioko lehergaiak.	H203	
1.4 dibisioko lehergaiak.	H204	
1.5 dibisioko lehergaiak.	H205	
1A kategoriako gas sukoiak.	H220	10
1B edo 2. kategoriako gas sukoiak.	H221	
1. kategoriako gas erregarriak.	H270	50
1. kategoriako likido sukoiak.	H224	10
2. kategoriako likido sukoiak, irakite-puntutik gorako tenperaturan mantentzen direnak.	H225	
3. kategoriako likido sukoiak, irakite-puntutik gorako tenperaturan mantentzen direnak.	H226	
2. kategoriako likido sukoiak, aurreko kategorian sartzen ez direnak.	H225	50
3. kategoriako likido sukoiak, gehiengo tenperatura onargarria sugar-puntua baino handiagoa denean, betiere aurreko kategorian sartzen ez badira.	H226	500
1. eta 2. kategoriako solido sukoiak.	H228	50
A motako substantzia eta nahaste autorreaktiboak.	H240	1
B motako substantzia eta nahaste autorreaktiboak.	H241	
C eta F motetako substantzia eta nahaste autorreaktiboak.	H242	50
1. kategoriako likido piroforikoak.	H250	50
1. kategoriako solido piroforikoak.	H250	50
Urarekin kontaktuan jartzean, 1. kategoriako gas sukoiak askatzen dituzten substantziak eta nahasteak.	H260	50
Urarekin kontaktuan jartzean, 2. eta 3. kategoriako gas sukoiak askatzen dituzten substantziak eta nahasteak.	H261	

1. kategoriako likido erregarriak. 2. eta 3. kategorietako likido erregarriak.	H271 H272	50
1. kategoriako solido erregarriak. 2. eta 3. kategorietako solido erregarriak.	H271 H272	50
A motako peroxido organikoak. B motako peroxido organikoak.	H240 H241	1
C eta F motetako peroxido organikoak.	H242	50
Toxikotasun akutua (ahotik) duten substantziak eta nahasteak; 1. kategoria. Toxikotasun akutua (larruzaletik) duten substantziak eta nahasteak; 1. kategoria. Toxikotasun akutua (arnastuta) duten substantziak eta nahasteak; 1. kategoria.	H300 H310 H330	0,5
Toxikotasun akutua (ahotik) duten substantziak eta nahasteak; 2. kategoria. Toxikotasun akutua (larruzaletik) duten substantziak eta nahasteak; 2. kategoria. Toxikotasun akutua (arnastuta) duten substantziak eta nahasteak; 2. kategoria. Toxikotasun akutua (arnastuta) duten substantziak eta nahasteak; 3. kategoria.	H300 H310 H330 H331	5
Esposizio bakarraren ondoren, organo zehatz batzuetan toxikotasun espezifikoak duten substantziak eta nahasteak; 1. kategoria.	H370	5
Presio-ekipoetan dauden substantziak eta nahasteak, ekipo horien gehieneko tenperatura onargarriak (TS) fluidoarenugar-puntua gainditzen duenak.	-	500

Substantziak eta nahasteak sailkatzeko, aintzat hartuko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008 (EE) Erregelamendua, zeina baita substantzien eta nahasteen sailkapenari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoa, eta zeinaren bidez aldatzen eta indargabetzen baitira 67/548/EEE eta 1999/45/EE Zuzentarauak eta aldatzen baitira 1907/2006 (EE) Erregelamendua (CLP Erregelamendua) eta haren ondorengo aldaketak.

- d) Uztailaren 24ko 709/2015 Errege Dekretuaren 4.1.3 artikuluan jasotako **hodiak**, 13. artikuluan eta II. eranskinean aipatzen diren II. eta III. kategorietakoak.

Proiektua aurkeztu beharra den kasu horietan, instalazioa EIP-2 mailako enpresa batek egin beharko du.

Hala ere, aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, erregelamendu honen Jarraibide Tekniko Osagarriek bestelako baldintzak adieraz ditzakete instalazio-proiektua aurkez dadin eskatzeko, edo bestelako dokumentazio espezifiko eska dezakete.